

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Ostirala, 2013ko apirilaren 26a. IX. urtea. 2.584. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

547 etxebizitza huts daude Tolosan

Tolosako Udalak herritarren ohiko bizileku ez diren etxeen datu bilketa egin du, «etxebizitza luxu izatetik, eskubide izatera igarotzeko» **4**

Parlamentuan izan da Maxurrenea Herrintzat plataforma

Nafarroako alderdiak Maxurrenea herriari uzteko mozioa babesteko prest agertu dira **6**

Hileko azken ostiralean '#M18Plazara' egitasmoa aurkeztuko dute

Gaur, euskal preso eta iheslarien eskubideen alde elkarretaratzeko egingo dituzte, hainbat herritan **5**

XXI. Loatzo Igoera-Jaitsiera igandean jokatu da, Amasan

10:30ean emango zaio hasiera lasterketari; egunean bertan izena emateko aukera izango da **3**



L'ESPRESSO

→ **Ibarrako gazteentzako etxebizitzak, erabilgarri.** Maiazaren 10era arte eman dezakete izena apartamentu dotazioaretan interesa duten 18 eta 35 urte bitarteko ibarbarrek; 150 eta 350 euro bitarteko alokairua ordainduko da hilean, diru sarreren arabera; datorren astean etxebizitzak bisitatzeko aukera izango da. **7**



Esku-eskura jartzen dizugu

Benetako 20 Mb

18'9 €hil

- Alta eta instalazioa DOAN
- WiFi N kable modernoa DOAN

logikeline
943 31 86 11
San Frantzisko 19 Tolosa



Banatzale ofiziala

Irudia ◊ **Alegia**



AHOTSA HEZITUZ

Joan den asteburuan Hondarribiko aterpetxean izan ziren Alegiako Txintxarri Txiki abesbatzakoak, Gipuzkoako beste 130 haurrekin batera, Haur Abesbatzen VII. Tailerlean parte hartzeko. Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak antolatutako ekimena izan da, eta beste behin, «emankorra eta aberasgarria izan da haurren ahots heziketarako», abesbatzatik azaldu dutenez. HITZA

Menpekotasuna duten pertsonak zaintzen dituztenentzat, ikastaroa

I. Garcia Landa

Sendian programaren barruan, menpeko pertsonak zaintzen dituzten familientzako prestakuntza ikastaroa antolatu dute, *Emozioen kudeaketa* izenekoa. Ikastaroa Alegiako kultur etxean izango da eta zazpi herritako menpekotasuna duten pertsonen familia edo eta zaintzaileei zuzenduta dago. Alegia, Altzo, Amezketza, Ikaztegieta, Abaltzisketa, Baliarrain eta Orendain dira herri horiek.

Zaintzaileen prestakuntza ho-

betuz eta haien ezagutzak zabalduz, menpeko pertsonen eskaintzen zaien arreta hobetzea, eta euren senideek ere, beren buruarenganako konfiantza handiagoa izan dezaten lortzea da hitzaldien bitartez gauzatzen den zerbitzu horren helburua.

Saioak maiatzaren 9, 10, 16 eta 17an izango dira, eta Karmele Gurrutxaga izango da ikastaroa emango duena. Ikastaroa goizez edo arratsaldez egin daiteke, eta izena 943 65 47 68 zenbakira deituz, maiatzaren 3a baino lehen, eman behar da.

→ Laburrak

Gizarteratze prozesuan izan direnei, esker ona

ANOETA ◊ Anoetako Udalak bando bat kaleratu du, eta bere «eskerrik beroenak» eman dizkie hondakinak biltzeko sistemaren aldaketan eta gizarteratze prozesuan parte hartu dutenei. Guztira 270 pertsona izan dira. Ekarpenak jasotzeko epea ere amaitu da, eta guztira 84 ekarpen jaso dituzte. Proposamenak eta ekarpenak euskarriak jartzeko garaian kontuan hartuko dituztela azaldu dute udaletik. Hurrengo pausoa kuboak banatzea eta euskarriak jartzea izango da.

Lehiberri zentroaren aurkezpena egingo dute

AMEZKETA ◊ Martxoaren 21ean zabaldu zituen atean Lehiberri, Tolosaldeko lehiakortasunerako eta berrikuntzarako zentroak. Eskualdeko herritar, enpresa eta ikastetxe guztien zerbitzura dagoela azaldu dute eta bere lan ildoak lau ardatz nagusitan banatzen dira: nazioartekotzea, prestakuntza, ekintzailetasuna eta lankidetzeta. Lehiberri zentroaren aurkezpena egingo da Amezketako kultur etxean, hilaren 29an, astelehenean, 19:00etan. Azalpenak ematen Joxe Luis Urdangarin Tolosaldea Garatzen garapen agentziaren kudeatzailea izango da.

Enjoy English udalekuak antolatu ditu ikastolak

VILLABONA-ZIZURKIL ◊ Iazko arrakasta ikusirik, aurten ere Jesusen Bihotza Ikastolak Enjoy English izeneko ingeles udalekuak martxan jarri ditu HH5 urtetik LH6 mailako ikasleentzat. Udaleku hauen helburua ingelera modu ludiko eta dibertigarri baten ikasi eta praktikatzea da, eta horretarako ingeles jatorriko begiraleak izango dira. Udalekuak ekainaren 26tik Udalekuak ekainaren 26tik eta ordutegia 09:30etatik 13:30etara izango da. Izena emateko azken eguna gaur da.

Lander Arbelaitzi elkartasun adierazpena

Informazio eskubidearen alde

Joan den astean, Espainiako auzitegiek Segiko kide izateagatik zigortutako zortzi gazte donostiarri babesa emateko asmoz, elkartasun ekimen jendetsua egin zuten Donostiako Bulebarrean. Hain zuzen ere, zigor politikoa jaso zutela salatzeko, eta euren atxiloketa saihesteko, ehunka pertsona zigortutako lagunekin izan ziren gau eta egunez, erresistentzia pasiboa eta desobediencia zibila oinarri. Testuinguru horretan, Ertzaintzak joan den ostiralean erabaki zuen Bulebarrean sartzea, zigortutako donostiarriak atxilotzeko helburuarekin, eta HITZA, beste hainbat komunikabiderekin batera, bertan izan zen albiste bertatik bertara emateko.

Ertzaintzak, baina, Bulebarrean iritsi bezain pronto, kazetarien lana oztopatu zuen, hasiera-hasieratik. Informazio gunitik urrundu zituen, eta, 'Argia' aldizkari kazetari Lander Arbelaitzen kasuan, kazetaria bera jipoi zuen, nahiz eta kazetaria zela esan eta akreditazioa erakutsi. Arbelaitzek jasotako tratua larria gaitzesteaz gain, informatzeko eskubidearen urraketa eman dela salatu nahi dugu HITZA osatzen dugun komunikabide guztiok. Hain justu, gogoratu dugu, bai Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari eta baita gizarteari, pren-

tza profesionalari bere lana egiteko mugak ezartzeak ez duela inolako justifikaziorik joan den ostiraleko gertakarien kasuan. Honelako erabaki bat soilik justifikatuta dago kazetariet poliziaren lana ez eragozteko edota beraien burua arriskuan ez jartzeko; bada, baldintza horiek nekez ematen dira Bulebarrekoaren antzeko gertakari bake-tsuetan.

Gizarte demokratiko batean, kazetariet askatasun osoz mugak ezartzea izan behar dute, herritartasunari informatzeko duen eskubidea bermatzeko. Eta hori ez zen joan den ostiralean gertatu, erreportariak poliziaren parte-hartze tokietatik urrundu baitzuten Ertzaintzak, lekukoak ez egotearen.

Hori gutxi balitz, ertzain ugari oldartu zitzaizkion Lander Arbelaitz kazetariari.

Honen guztiagatik, HITZAK kazetariet elkartasuna azaldu eta Ertzaintzaren jarrera gogor salatu nahi du, eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari argibideak emateko eskatu, gizarateak eta prentsa profesionalak azalpen bat merezi dutelako.

■ Busturialdeko Hitza, Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza, Goierriko Hitza, Irutxuloko Hitza, Oarsobidasoako Hitza, Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza, Urolakostako Hitza.

Benito Lertxundiren abestiak, Leidor aretoan

Erredakzioa Tolosa

Kilometroak 2013 egitasmoaren barruan, gaur kontzertu berezia izango da Tolosako Leidor aretoan. Et Incarnatus orkestrak eta lau haur abesbatzek, tar-tean Lasakorain ikastolako Lask abesbatza, Benito Lertxundiren abestiak eskainiko dituzte. Emanaldia 20:30ean hasiko da.

Lask abesbatzarekin batera kontzertuan parte hartuko duten abesbatzak ondokoak izango dira: Donibane Garazi, Baigorri eta Hendaiaiko eskola publikoetako haur abesbatza, Gasteizko Crescendo abesbatza eta Zegamako Orkatx Txiki haur abesbatza. Sarrerak 10 euroren truke erosi daitezke.

↓ Iragarki laburrak

ETXEBIZITZA

Alokagai. Amezketan, alokairuan jartzeko etxebizitza bat eskaintzen da. Interesatuek, deitu 645 734584 zenbakira.

LAN BILA

Etxeko lanak. Goizetan, etxeko lanak egin edota haurrek zaintzeko, autodun emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. 943 696882 / 606 521992.

www.inmosalbide.com

Aia. Baserría berritu berria. 125m²-ko bi solairu ditu. 25 m²-ko terraza. Terrenoa, 110.000m². 50.000.000 pezeta.

Aizarnazabal. 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 24.500.000 pezeta.

Bergara. Askarruntz auzoa. Guztiz berritua: bi logela, diseinuzko sukaldea, berokuntza sistema gasarekin. 150.000euro!

Donostia. Amara-Amezketza kalea 3 logela, 2 bainugela eta terraza. Igogailua eta gasa. Zazpigarren solairua. Izkina. Ezin hobea. 59.898.960 pezeta.

Iraeta. Etxe berria. 2 logela, terraza eta lorategia. Garaje handia. Komunitateko igerilekua. Prezio berria: 35.000.000 pezeta.

Zarautz. Azken Portu. 92m² ditu. 4 logela, terraza, trastelekua eta igogailua. Erreforma behar du. Prezio berria. 54.000.000 pezeta.

Zarautz. SALBIDE. 3 logela, 2 bainugela, terraza, trastelekua eta garaje itxia. Oso egoera onean. 75.000.000 pezeta.

Zarautz. Itxasmendi. 3 logela eta 2 bainugela. Erreforma behar du. 41.000.000 pezeta.

Bizkaia kalea, 6 · 20800 Zarautz · Tel.: 943-01 07 00 · Mug.: 665-71 85 96

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosak, bigarren nazional mailara igotzeko fasea jokatu du asteburuan

M. Iraola Tolosa

Gipuzkoako Liga eta Kopa irabazi ondoren, Tolosa eskubaloiko lehen taldeak bigarren nazional mailara igotzeko fasea jokatu du asteburu honetan. Usabal kiroldegian jokatu dituzte faseko partida guztiak.

Gipuzkoako eta Bizkaiko lehen hiru talderik hobereenak bilduko dira Usabalen: Tolosa, Aménabar Zarautz eta Laubide jatetxea Legazpi Gipuzkoatik, eta Balonmano Romo Indupime, Universidad de Deusto Loyola eta Erandio eskubaloia.

Gaur arratsaldean jokatu dituzte lehen bi partidak, horietako bat Tolosarena (20:15ean). Bihar goizean beste bi neurketa jokatu dituzte. Tolosak atsedena izango du igandera arte, eta 12:00etan, Legazpiaren aurka jokatu dute.

Herri Txikietako Mikrofutsal Txapelketako irabazleak etzi erabakiko dira

M. Iraola Bidegoian

Igandean Gipuzkoako Herri Txikietako Mikrofutsal Txapelketako jokatu dute Bidegoiango pilotalekuan, 11:00etatik aurrera. Txalburuk A taldea lehen postuan da mutilen mailan, nahiz eta Lizartza-Orexa A, Bidania eta Txalburuk B taldeek ere badituzten irabazteko aukerak. Emakumeen mailan, berriz, Ikaztegieta da sailkapenean lehena, baina, Lizartza-Orexa A eta Leburuko taldeak gertu ditu.

Sari banaketa 13:00ean egingo dute, eta bertan, Euskal Herriko selekzio kideak eta federazio presidentea izango dira.

Igandean jokatu dute XXI. Loatzo igoera-jaitsiera

Izen emateko aukera 09:00etatik aurrera zabalik izango da; lasterketa, berriz, 10:30ean abiatuko da

Mikel Iraola Amasa-Villabona

Amasako Martina kultur elkarteak eta Uxo-Toki elkarteak antolatuta, Loatzoko igoera-jaitsiera mendi lasterketa jokatu dute etzi, hilaren 28an. Aurtengo igoera-jaitsiera lasterketa XXI. a izango da, eta ezaugarriak ohikoak izango dira.

Guztira, 9,7 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute korrikalariak, eta 583 metroko gora-behera egin beharko diote aurre. Amasako elizan hasiko da proba, 90 metroko altueran, eta Loatzoko gaina, berriz, 631 metroan dago. Ondorengo jaitsiera arriskurik gabekoa bada ere, antolatzaileek istripuen ardura beren gain ez dutela hartuko azaldu dute.

Lasterketari 10:30ean emango diote hasiera Amasako Uxo-Toki elkartetik, eta gutxi gorabehera, hiru ordu laurden iraungo dute sailkapenaren lehen postuetan amaitzen dutenek. Izen-ematea, berriz, goizeko bederatzietatik aurrera egongo da zabalik Uxo-Toki elkartean, eta doakoa izango da.

Gizon zein emakumeek, maila berean parte hartuko dute, ez da desberdintasunik izango. Pasa den urtean, eta baita duela bi urte ere, Hassan Ait Chaou billabonatarra izan zen garaile.

Lehen hiru sailkatuen artean 250 euro, eta beste hainbat opari banatu dituzte. Irabazleak, 120 euro, txapela, lore-sorta, txuleta eta ardo botila eramango ditu. Txapeladunordeak, 80 euro poltsikoratzeaz gain, oilasko bat eta txanpain botila bat eskuratuko ditu. Eta hirugarren sailkatuak, berriz, 50 euroko saria, untxi bat eta beste txanpain botila bat eramango ditu etxera.

Horrez gain, lasterketa ama-



Joan den urteko irabazlea, Hassan Ait Chiou, helmugan. ERIKA SARASOLA

↓ Ezaugarriak

XXI. LOATZO IGOERA

- **Data.** Apirilak 28, igandea.
- **Lekua.** Amasa.
- **Irteera.** 10:30ean, Uxo Toki elkartetik.
- **Distantzia.** 9,7 kilometro.
- **Desnibela.** 583 metro.
- **Izen ematea.** 9:00etatik aurrera, Uxo Tokin. Doan.
- **Sariak.** Lehenak: 120 euro, txapela, lore-sorta, txuleta eta ardo botila. Bigarrenak: 80 euro, oilasko eta txanpain botila. Eta hirugarrenak, 50 euro, untxia eta txanpain botila.

tzen duten parte-hartzaile guztien artean, arkumeak, oilaskoak, untxiak, gaztak eta beste zenbait gauza zozkatuko dituzte. Lo-

atzoko gainera hurbiltzen direnek ere hamaiketakoaz gozatzeko aukera izango dute.

Bihar, Leitzan herri krosa

Bihar arratsaldean, berriz, Aurrera Kirol Elkarteak antolatuta, XXXV. Herri Krosa egingo dute Leitzan haur eta helduentzat.

16:30ean hasiko dira probak, eta zazpi mailatan banatu dira. Banaminek 800 metro egin beharko dituzte; alebin eta infantilek, 2.500 metrokoa; kadete, junior eta senior emakumeek, 5.000 metroko ibilbidea; eta senior gizonenak, 10.000 metrokoa.

Izen-emate epea atzo amaiteu bazen ere, parte hartu nahi dutenek, 15:30etatik aurrera, Aurrera Kirol elkartean izen-emateko aukera izango dute. Bazkideek, 10 euro ordaindu beharko dituzte; gainontzekoek, berriz, 15 euro.

→ Laburrak

Bihar hasiko da I. Miguel Soroa Memoriale

PILOTA ▶ Bihar arratsaldean jokatu dituzte I. Ogiberri Miguel Soroa Memorialeko lehen partidak. Etorkizuneko eta elite mailako neurketa bana izango da Beotibar pilotalekuan. 16:30ean, Labaka-Agirre eta Olaizola-Goñi bikoteen arteko partidak irekiko du jardunaldia. Gero, elitekoen txanda izango da; Bisintxo eta Perezek, Urretbizkaia eta Sanchezen aurka jokatu dute.

Udaberriko txapelketako jaialdiak, gaur

PILOTA ▶ Intxurre pilota elkarteek pilotariak Udaberriko Txapelketako partidak jokatu dituzte gaur arratsaldean Altzo, Alegia eta Ikaztegieta frontoietan. Altzo, jubenil nesken gomazko paleta txapelketako partida izango da. Alegian, intarfil eta lehen eta bigarren mailako kadeteak lehiatuko dira. Ikaztegieta, berriz, bigarren mailako kadeteek eta nagusiek jokatu dute. Partidak, 19:00etan dira.

Pilota eskolen topaketa, bihar, Zizurkilen

PILOTA ▶ Asteasu, Villabona, Aduna eta Zizurkilgo pilota eskolen topaketa egingo dute bihar, Zizurkilen, 15:00etatik aurrera. Batz-beste 14 partidak jokatu dituzte.

Arangoiti mendira irteera antolatu du Oargik

MENDIA ▶ Maiatzaren 5erako, Arangoiti mendira irteera antolatu du Oargik. Leireko monasteriotik (Nafarroa) igoko dira, eta 700 metroko gora-behera du. Igoera hiru ordukoa izango da, eta ibilbide osoa, ia bost ordukoa. 08:00etan irteerako dira Usabal kiroldegitik. Izena emateko, info@oargi.org helbidera idatzi beharko da maiatzaren 2a baino lehen. Bazkideek, 15 euro ordaindu beharko dute, eta gainontzekoek 18 euro.

Mauka GAURKO ESKAINTZA

Menu berezi bat Salbide tabernan

SALBIDE JATETXEA
Surbide kalea, 38
ZARAUZ 20800 - GIPUZKOA
Tel.: 943-01 06 88
www.surbide.com

Prezioa **24€**

www.mauka.eu berria

irabazleak sarrerak

HITZAK harpidedunentzat sarrera pare bat du

• Josefa Murua (Tolosa)

LAGUN ARO GBC
Blusens Monbus
saskibaloit partida

Apirilak 27 • Larunbata
19:15ean Donostiako Ilunben

Sarrerak leihatilan bertan

HITZAK harpidedunentzat sarrera pare bat du

• Agustin Agote (Tolosa)

KMK'13ren aldeko kontzertua
BENITO LERTXUNDI KANTATUZ

Apirilak 26 • Ostirala
20:30ean Tolosako Leidorren

Sarrerak HITZAKo egoitzan

Herritarren ohiko bizileku ez diren 547 etxebizitza huts daude Tolosan

Tolosako Udalak datu bilketa egin du, «etxebizitza luxu izatetik, eskubide izatera igarotzeko»

Itezia Urkizu

Tolosako Udalak herrian hutsik dauden etxebizitzaren datuak bildu ditu, eta guztira, 547 etxe huts daudela jakinarazi dute Ibai Iriartek eta Lore Agirrek. Azaldu dutenez, «legealdi honetako konpromiso nagusietako bat da, etxebizitza luxu izatetik, eskubide izatera igarotzea»; horrela beraz, zenbait egitasmo abiarazi dituzte azken hilabeteotan, jomuga horri begira.

Batetik, Agaramunduko (igerileku zaharreko) hainbat etxebizitza alokairu sozialean jarri zituzten, irisgarritasun arazoak dituzten herritarrentzat; etxe hauetara joandako adineko pertsonak, hain zuzen, beren etxebizitzak gazteei alokairuan eman dizkiete, eta gaur egun, sei etxebizitza bete dituzte modu honetara.

Ibai Iriartek nabarmendu duenez, gainera, Euskal Herria plazan aurreikusita dauden gazteentzako 27 etxebizitzaren obra esleipea datorren asteko osoko bilkurako gaietako bat izango da: «Urte eta erdi barru amaituta izango dira».

Azkenik, Ondasun Higiezinaren gaineko zerga aldatu du Tolosako Udalak, eta etxebizitzaren esparruan hartutako neurriak nabarmenetsak izan da. 2013ko ordenantza fiskalak aldatuta, etxe hutsen %50eko erretegia egin diete lehen aldiz: «Aldaketarekin, Tolosako Udalak etxebizitzaren erabilera dinamizatu nahi du, eta

era berean, etxebizitza eskubidea ere bermatu nahi du, etxe horiei aterabidea emanaz».

Iriartek nabarmendu egin du, foru arau berriek ahalbidetu dutela ordenantza fiskalak aldatzea, izan ere, «gehien duenak ahalagin handiagoa egin behar du, gutxi duenak zerbitzu publiko duin bat jaso dezan».

«Daukaguna ondo kudeatzea»

Tolosako Udala etxebizitza hutsen datu bilketarekin hasi zenean, datuen arabera 754 etxebizitza zeuden hutsik; 754 etxebizitzetan, beraz, ez zegoen inor erroldatuta.



Ibai Iriartek eta Lore Agirrek ezagutarazi dituzte etxebizitzaren datuak. I. URKIZU

Lore Agirrek azaldu duenez, Tolosako etxebizitzaren %9a osatzen dute etxebizitza horiek.

Hala ere, Tolosako Udalak zen-

bait salbuespen zehaztu zituen, etxebizitza hutsak sailkatzerokan: gutxienezko bizigarritasun baldintzak betetzen ez dituzten

etxeak, Biziguneraren gisako programetan sartuta dauden etxeak, ikasleei errentan emandako etxeak, zahar etxeetan erroldatutako pertsonen etxebizitzak, herentziatuz jasotako etxebizitzak, eta azkenik, merkataritza jardueretarako erabiltzen diren etxebizitzak, salbuespen kasuen artean sartu zituzten, beraz.

Berain salbuespen hauen barruan zeuden etxeak zerrendatik aterata, herritarrei erreklamazioak jartzeko epea ireki zuten Tolosako Udalak, «ordenantzaren helburua ez delako diru bilketarena, etxebizitza sistema dinamizatzearena, baizik», dio Agirrek: «280



Hirigintzarako politikarik hobereana, daukaguna ondo kudeatzea da»

IBAI IRIARTE
Tolosako alkatea

erreklamazio jaso ditugu, eta banan-banan aztertu ditugu. Lan gogorra izan da, eta baldintzak nahiko irekiak izan dira, lehen urtea delako; horrela, 207 erreklamazio onartu egin ditugu», nabarmendu dute.

Besteak beste, 2012ko alokairu kontratua dutenak, fakturen bidez etxea ohiko bizileku dutela erakutsi dutenak, mendekotasun arazoengatik senitartekoen etxean erroldatuta daudenak nahiz lan arazoengatik kanpoan erroldatuta daudenak izan dira, Tolosako Udalak onartu dituen herritarren erreklamazioak.

Horrela beraz, gaur egun, 547 etxebizitza dira, Tolosan hutsik daudenak; Tolosako etxeren %6a osatzen dute.

Auzi honen inguruan, Ibai Iriartek «horrelako neurriak pixkana zurruntzen» joan beharko dutela azpimarratu du: «Hirigintzarako politikarik hobereana, daukaguna ondo kudeatzea da».

SARRERAK

Denok Bera Bera eskubaloitza taldea animatzera maiatzaren 4an!

LIGAKO PARTIDA ERABAKIORRA!

Apirilaren 28tik aurrera

www.mauka.eu

Gutuna

Tolosaldea Txukun (II)

Tolosaldea Txukun taldeak «informazio bilera» egin zuen Anoetan, Atez Atekorik ezlelopean. Hondakinak biltzeko sistema berriaren aurka erabili zuen hirugarren argumentua ekonomikoa izan zen (aurreko artikuluan aipatu genituen beste biak). Oso garestia omen da. Herrietan 12.000 euro gastatzen ari omen dira kuboetan. Patxi Amantegi jauna: zenbat kostatuko litzaioke Gipuzkoako herri bakoitzari Zubieta erroaste planta? Kostu totala behintzat, milioika euro; zergatik ez duzu esaten zenbat aurretzuko duen herri bakoitzak zaborrak erroaste plantara eta zabortege-

tara eramangabe? Usurbilgo udalak 150.000 euro aurretzuko hondakin bilketa eta kudeaketan 2012an. Sistema berriek lanpostuak sortzen dituztela onartu zenuen, eta hori ere zalantzan jartzen saiatu zinen (bilketa sistema mekanizatutik eskuzko-ara pasatzea atzerapausoa dela, ea norik egin nahiko duen lan hau krisia pasatzen denean...). Nola da hori posible? Zenbat balio du aire garbia arnasteak?

Bilera horretan, hizlariak ez zuen hitz egin nahi izan estetika edo erosotasunari buruz, gai subjektiboak omen direlako. Baina bilera deituko erabili zuten karte-

letan, zabor-poltsak betetako posteen argazkiak jarri zituzten, jakinik Anoeta eta Iruran, hondakinak kuboetan bilduko dituztela. Gure ustez, fede txarrekin jendea manipulatzeko da hori, informatu beharrean.

Eta gure ustez, salagarriak dira bileran esandako beste batzuk ere. Adibidez, hizlariak modu ironikoa bota zuen Spora enpresa katalana Hernanin ezarri dela eta «oso ondo dihoakiola» (lana desprestigiatu nahian). Publikotik norbaitek «ia esos habria que fusilarlos a todos!» esan zuen, eta Amantegi jaunak bilera publiko batean horrelakoak moztu beharrean, «no, que son muchos» erantzun. Edo nola saiatzen den balioa kentzen galderak «zailei»:

«Zuk jaisten al duzu zaborra? Ez dut uste». Edo nola saiatzen den garrantzia kentzen Legorreta eta Lezon gertatutako: «Bi poste bakarrik hautsi dira». (Publikotik gogorazti zioten batzuk Audiencia Nazionalera bidaltzen dituztela sabotajeagatik). Eta okerrera, bilera amaieran botatakoa: «Berdintsu izango litzateke organiko komunetik botatzea, Adu-nako kolektorean jasoko baillitazteke».

Gure ustez iritzi guztiak errespagarriak dira, eta zilegi da atez atekoaren kontra egotea, baina birziklatzearen alde dagoela diotenak, zabor poltsa lurrean uzteko edo organikoak ibaira botatzeko esatea, oso larria da, Tolosaldea Txukun-eko bozeramailearen ar-

dura-falta handia erakusten baitu.

Talde ekologista nagusiek (Eguzki, Ekologistak Martxan, Greenpeace) auzo konposta eta atez atekoaren aldeko apustua egin dute, eta Europar Batasunak eredugarritzat jo du Gipuzkoako hainbat herri hartu duten bidea.

Diferentziak diferentzia, ahalik eta hondakin gutxiago sortu, eta ahalik eta gehien birziklatzearen alde gauden guztiok, ahalgaitza egin behar dugu, denon helburuak bermatzeko, balekoak izango diren sistemak adosteko.

Gaur egun bizi dugun liskar giroa baztertu, eta jarrera eraikitzaileak, nahiz elkarri entzutea beharrezkoak dira. Zergatik ez saiatu? ■ Tolosaldea Zero Zabor.

‘#M18Plazara’ azken ostiralean aurkeztuko dute

Tolosaldeko eta Leitzaldeko hainbat herritan maiatzaren 18rako ekimenak prestatzen ari dira

Asier Imaz

Hilabeteko azken ostiralean, gaur, euskal preso eta iheslarien eskubideen alde elkarretaratzeko egingo dituzte Tolosaldeko eta Leitzaldeko herrietan, Herrirak antolatuta. Bertan, #M18Plazara ekimena aurkeztuko dute. Herriratik honela azaldu dute leloaren atzean dagoen mobilizazioa: «Datorren maiatzaren 18an, Euskal Herriko 200 plaza baino gehiagotara, euskal preso politikoen eskubideen aldeko aldarria jendarteratuko duen mobilizazio deszentralizatua antolatuko dugu».

Eskualdeetako herrietan ekimena prestatzen ari dira, eta maiatzaren 18a «inflexio une bat» izatea nahi dute.

Tolosaldeko Herrira-tik azaldu dutenez, «espetxe politikaren aurpegiak krudelena ikusi dugu azken asteetan, ondorio latz eta atzeraezinak pairatuz, eta etengabe tragediarekin harremanetan». Horren adibide bezala, Xabier Lopez Peña eta Angel Figueroaren heriotzak aipatu dituzte, baita «Bigarren Ibarra edo Jabi Martinez Izagirreren gertukoek izandako istripuak, eta Puerto Sevilla edo Mureten emandako eraso fisikoak ere». Guzti horregatik, «garaia da giza eskubideak era nabarmenean urratzen dituzten salbuespeneko neurriekin amaitzea», gaineratu dute He-

rrira-tik. Preso eta iheslarien eskubideen aldeko mugimendutik, «euskal jendarteko zati handi baten sufrimendua eta antsietatea luzatzeaz gain, konponbidea eta bakea definitiboki lortzeko bidean traba besterik ez dutela egiten» aipatu dute.

Herrira-ren aburuz, «Madriren eta Parisen nagusi den eskubide urraketa eta inboluzioaren aldeko jarreraren aurrean,

herritarren protagonismoa da errezetarik onena». Horregatik, bakoitzak bere esparrutik, dituen aukeren arabera eta egokien baloratzen duen ekarpena eginez, bultzada eta ekimen guztiak aberasgarriak direla gogoratu dute euskal preso eta iheslarien mugimenduko kideek. Maiatzaren 18ko egitasmoa bide horretan kokatu dute, «aldaketan nahia eta beharra» irudikatzen bidean.



‘Goazen plazara!’ ekimena antolatuta zuen iaz Herrira-k, maiatzean. A. IMAZ

Lasai bizitzeko beharrezko estaldurak dauzkaten auto-, bizi- eta etxebizitza-asegurua. Kutxabanken konfiantzaz eta, orain,

%15

arteko deskontua lehenengo urteko priman bezeroentzat. Galdetu iezaguzu.

Seguru, Kutxabanken.

AUTO ASEGURUA

BIZI ASEGURUA

ETXEBIZITZA ASEGURUA

↓ Azken ostirala

GAUR

- **Aduna.** 20:00etan.
- **Alegia.** 19:30ean.
- **Altzo.** 20:00etan.
- **Amezketeta.** 19:30ean.
- **Anoeta.** 19:30ean.
- **Asteasu.** 19:00etan.
- **Berrobi.** 19:30ean.
- **Berastegi.** 19:30ean, herriko plazan.
- **Bidegoian.** 19:00etan Goiatzeko autobus geltokiaren aurrean.
- **Ibarra.** 19:30ean.
- **Irura.** 19:30ean, plazan.
- **Gaztelu.** 19:30ean, plazan
- **Ikaztegieta.** 20:30ean.
- **Leitza.** 20:00etan.
- **Leaburu.** 20:15ean.
- **Lizartza.** 20:00etan.
- **Tolosa.** 19:30ean.
- **Villabona.** 20:00etan.
- **Zizurkil.** 20:00etan.

Irudia ▾ **Asteasu**



DIPUTAZIOA HERRITARRENGANA GERTURATZEN

Martin Garitano Gipuzkoako ahalzun nagusia Asteasu izan zen atzo. Egun guztia pasa zuen herritarrekin hartu emanean. Bisitaren helburua, Gipuzkoako Foru Aldundia herritarrengana hurbiltzea izan zen, «instituzio arrotz bat izan ez dadin». Goizean, Martin Garitano

Pello Errota herri ikastetxean izan zen. Ikasleek eskolako txoko guztiak erakutsi zizkioten, eta horrez gain, ahalzun nagusiari hainbat galdera zuzen egin zizkioten. Horien artean, baseritarrei gehiago laguntzea eskatu zien. Ikastetxean egon ondoren, udaletxeko langileekin

eta enpresarekin elkartu zen Garitano. Arratsaldean, baseritarrengana joan zen, eta herritarrekin elkartu aurretik, Asteasuko gaztetxea ezagutu zuen, Matxintxulo Gazte Asanbladako kideen eskutik. Pili Legarra alkatea, une orotan, ahalzun nagusiarekin egon zen. A. IMAZ

Maxurrenea Herrintzat, pozik alderdien jarrerarekin

Talde parlamentario gehienak, Maxurrenea eraikina herriari uzteko mozioa babesteko prest agertu dira

M. Iraola

Maxurrenea Herrintzat plataforma pozik agertu da Nafarroako Parlamentuan izandako lan-saioa

eta alderdiek erakutsitako jarrerarekin. Plataforma adierazi dutenez, donazioaren kontratuko helburua betetzen ez denez, leitzarren eskaera «arrazoizkotzat» eman dute talde parlamentario gehienek

Plataformako kide den Iñaki Zabaletak, hori gogorarazi nahi izan du: «Ongintza heziketa jarduerak burutzeko baldintzarekin onartu zuen Nafar Gobernuak Maxurrenea etxea, beraz ez da do-

nazioaren helburuekin betetzen ari. Espainiako Gobernuari alokatu zitzaion eta diru hori ez da erabili eraikina eraberritzeko».

Bilduko Bittor Rubiok, Maxurrenearen egoera «leheneratu» egin behar zela esan zuen: «Arrazoi historiko, kultural zein normalizazio politikogatik, mozioa babesteko dugu Leitzari Leitzarena dena eman diezaiotem».

UPN alderdiko Geronimo Gonzalezek, berriz, dokumentazioa

irakurri eta helburuak betetzen ez direla ikusita, Nafar Gobernuari horren berri emateko konpromisoa hartu zuen, eta kuartelarentzat beste kokapen bat bilatu beharko dela esan zuen.

María Victoria Arraiza, PSNko kideak, eskaera «logikoa» dela adierazi zuen, eta bi aldeak asebeteko dituen irtenbidea bilatu behar dela.

Nafarroa Bai alderdiko Asun Fernandez de Garaialdek, eskae-

ra eta mozioa onartuko dituztela berretsi zuen, «plataformak herria ordezkatzeko duelako. Bada garaia zer nolako polizia behar dugun eztabaidatzeko, eta Leitzak ez du Guardia Zibila behar».

Eloy Villanueva popularrak, ordea, bere horretan uzteko aldarria egin zuen, «herrian bere lana betetzen dutelako».

Ezkerreko Txema Mauleonek berriz, «aldarrikapen logikoa» zela esan eta mozioa babestu zuen.



harpidedun izateak badu saria irabazleak

1 Casa Julian

Bi laguntzako bazkaria edo afaria

Santa Klara, 6 - Tolosa
Tel.: 943-67 14 17
www.casajuliandetolosa.com



• **Izaskun Garmendia (Tolosa)**

Eskaera egiteko, bi hilabete.

2 Hitza

Mutilentzako Kirol jertsea Neurria M

• **Marijo Urizar (Tolosa)**

Saridunak etxean jasoko du kirol jertsea.



3 Donostiako Aquariuma
Bi laguntzako bina sarrera

www.aquariumss.com

• **Aloña Urdaleta (Ibarra)**
• **M.Mai Sagastibeltza (Ibarra)**

Saridunek bina sarrera leihatilan, bi hilabetez.



Gazteentzako etxebizitzak prest dira

Maiatzaren 10era arte eman dezakete izena 18 eta 35 urte bitarteko ibartarrek; ondoren zozketa egingo dute

Iñigo Terradillos Ibarra

Ibarrako gazteei zuzenduriko etxebizitza dotazionalak prest daude. Apartamentuak altzariz hornitu eta bertara bizitzera joatea besterik ez da geratzen. Horretarako, aurretik, udalak zozketa egingo du izena ematen dutenen artean. Etxebizitza hauek bizi-erantzule joateko interesa dutenek maiatzaren 10a baino lehen eman beharko dute izena. Oraingoz, 20 herritarrek egin dute eskaera.

32 etxebizitza dira orotara, eta batez besteko azalera 30 m²koa dute. Horietatik bi ezintasunen bat dutenentzat egokituak dira; beste bi, bi gela dituztenak dira, hau da, menpeko pertsonaren bat duten familientzat, eta gainerako 28 apartamentuak gela bakarrekoak dira. 18 eta 35 urte bitarteko ibartarrek dute etxebizitza hauek bizi-erantzule joateko aukera. Zozketaren ostean etxebizitza egokitzeko zatiak bost urtean bertan bizi ahaliko dira alokairu bidez. Alokairua 150 eurotik 350 euro arterainokoa izango da, diru sarriaren arabera. Trastelekua ere badute etxebizitzek, eta garajea ere aukeran izango dute, hilean 60 euro ordainduta.

Berezitasuna ere badu eraikinak, izan ere, energiaren aurrezpenari arreta berezia jarri nahi izan dio udalak. Hala, kogenerazio sistema bidez balliatu egingo du ura berotzeko erabiltzen den energia.

Ate irekiak

Herritarrek apartamentuak ikusteko aukera izango dute bi egunetan. Datorren astelehenean, apirilaren 29an, eta ostegunean, maiatzaren 2an, atek zabalik izango dira, 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.



Sukalde-egongela eta gela bat edo bi dituzte apartamentuek. I.T.



Balkoi edo terraza dotoreak dituzte etxebizitza gehienek. I.T.



Garajeak bi solairutan daude banatuta. I.T.



Etxebizitza bakoitzak bere trastelekua du garajeetan. I.T.



Sukaldea eta komunak hornituta dituzte etxebizitzek, eta gainerako altzariak maizterrek jarri behar dituzte. I.T.

Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

MIGUEL ZABALA CAMIO
JAUNA

Apirilaren 24ean hil zen, 83 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Goian bego -

Emaztea: Josefa Arrospe; seme-alabak: Lourdes eta Lorenzo, Izaskun eta Jose Mari, Ana eta Alberto, Isabel eta Javi, Maite eta Jesus, Andoni eta Izaro, Ione eta Eugenio; anai-arrebak: Pedro (†), Paulino (†), Joakin, Antonio, Mariano, Maite eta Antonio; ezkon anai-arrebak, bilobak, ilobak, lehengusak eta gainerako ahaidak.

Haren arimaren alde otolitz bat eskatzen dizuegu eta arren etor zaitzetzela, GAUR OSTIRALA arratsaldeko SEIETAN, Gazteluko ANDRE MARIAREN JASOKUNDEAREN parrokian izango den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Borda - Txuri baseria

Gaztelu, 2013ko apirilaren 26an

Oharra: Gorputz beila Tolosaldeko FUNERARIA ORIA TANATORIOAN egongo da, GAUR OSTIRALA goizeko 11:30ak arte.



15°
7°

GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	11°
HOTZENA	6°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak: **BERTAKO** HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeako, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Egunkoia eta gauekoa: Bronte, C. Korreo kalea, 20 Telefonoa: 943 67 60 13.
- **Arrib.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112.

BIHAR

- **Tolosa.** Egunkoia eta gauekoa: Olarreaga, M. Martin J. Iraola etorbidea, 10 Tf: 94367 24 38.
- **Arrib.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112.

ETZI

- **Tolosa.** Egunkoia eta gauekoa: Etxebeste, J.M. Gernikako Arbolen lorategiak, 3. Telefonoa: 943 65 10 40.
- **Arrib.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112.

ETZIDAMU

- **Tolosa.** Egunkoia: Bengoe-txea, E. Kalea Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48. Gauekoa: Azpiroz, L. Amaro auzoa, 9. Telefonoa: 943 67 51 18.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Agenda

GAUR

DEIALDIK

- **Leitza.** Leitzaoko Caritas eta Gizarte zerbitzuak elikagaien bilketa egiten ari dira herriko dendetan. Bestalde, hilaren 28ra bitartean Karrape tabernan egongo dira 18:00etatik 20:00etara.
- **Ikaztegieta.** *The shock doctrine* dokumentala ikusteko aukera izango da, 22:00etan, udal-etxeoko areto nagusian, Etnai gazte antolakundearen eskutik.
- **Zizurkil.** XI. Antzerki Astearen barruan, 17:00etan, *Sarean zintzilik* ikuskizuna izango da, Iriarte Etxean.

MUSIKA

- **Leitza.** Nabil talde lekeitiarrak kontzertu akustikoa eskainiko du, 22:30ean, Gaztetxean.
- **Tolosa.** Benito Lertxundi Kantatuz, Et Incarnatus eta Lask abesbatza Leidor aretoan, 20:30ean. Kilometroak 2013k antolatuta.

- **Tolosa.** La Jodedera taldea ariko da zuzenean, Orbela tabernan, 23:00etatik aurrera.
- **Tolosa.** Bonberenean Tooth eta Meido taldeen kontzertua izango da, 22:30ean. Sarrera, 8 euro izango da.

BIHAR, APIRILAK 27

DEIALDIK

- **Leitza.** Aurrera Kirol Elkarteak antolatuta Herri Krosa izango da. 16:30ean emango zaio hasera, eta egunean bertan Aurrea elkartearen, izena emateko aukera izango da 15:30etik aurrera.
- **Villabona.** Villbonako Soinu Zahar eta Aurreku txapelketa izango da, 16:30ean, Gurea aretoan.
- **Zizurkil.** Bakarrizketa afaria izango da Atxulondo tabernan, 21:00etan. Jon Zubiagak eskainiko du emanaldia. Txartelak 15 eurotan daude salgai Atxulondo eta Iriarte tabernetan.

MUSIKA

- **Tolosa.** Rei Kimera taldea izango da San Esteban auzoan, 22:30ean. Sarrera eta diskoa doan banatuko dituzte.

ZINEMA

- **Tolosa.** Leidor aretoan, 19:30ean *Efectos secundarios* eta 22:30ean, Grandes Esperanzas filmak eskainiko dituzte.
- **Villabona.** Gurea aretoan, 22:00etan, *Las flores de la guerra* filma eskainiko dute.

ETZI, APIRILAK 28

DEIALDIK

- **Anoeta.** Anoetako Sortu alderdi berria eta Etnai ezker

abertzalearen gazte antolakunde aurkeztuko dituzte, 12:00etan, Mikelasgasti auditoriumean izango da.

ZINEMA

- **Villabona.** Gurea aretoan, 17:00etan haurrei zuzendutako *Kerity, ipuinen etxea* euskarazko filma ikusteko aukera izango da. Ondoren, 19:30ean, *Las flores de la guerra* filma eskainiko dute.
- **Tolosa.** Leidor aretoan, 17:00etan, haurrei zuzendua den *Jack el cazagigantes* filma izango da. 19:30ean, *Grandes esperanzas* filma izango da eta 22:00etan, *Efectos secundarios* eskainiko dute.

ARKT Arkitalde

IGOGAILUA JARRI NAHI? EZINEZKOA DELA USTE DUZU?

Guk aurkituko dugu intenbide

ONA ETA MERKEA

Hogeita abar urte

HERRI URRATS 2013

MAIATZAREN 12a

SENPERE

Aurten noraino?

EGIZU DEKLARAZIOA EUSKARAZ!

Herria, Tolosa, Villabona, Zizurkil eta URMIAko Tolosaldeko udal herriak: Aduna, Anoeta, Alegia, Altzo, Amezketa, Berastegi, Irura eta Druze.

ARRIARAN 1949

ESTACION DE SERVICIO ARRIARAN, S.L.
LARRAMENDI, 28; 38 posta kutxa
20400 TOLOSA (GIPUZKOA)
TEL. (943) 67.48.28 - FAX. (943) 67.49.82
www.arriaran.com

AVIA

Soterramenduko obrak dirauen bitartean

ABANTAILA HOBERENETAZ BALIATU ZAITEZ!!!

ALDI BATERAKO SARBIDEA ARRIARAN GASOLINDEGIRA, NORABIDE GUZTETARA JOATEKO AUKERAREKIN ACCESO PROVISIONAL A LA E.S. ARRIARAN, CON POSIBILIDAD DE ACCEDER A TODAS LAS DIRECCIONES

TXARTELEKO DESKONTUA %50AN GEHITU

GARBI EZAZU ZURE KOTXEA DOHAIN
ARRIARAN GASOLINDEGIAN GASOLINAZ HORNITUZ GERO

*OHARRA: Informa zaituzte promozio honetaz Arriaran gasolindegian.